

www.noaia.com

Noaia !!



Mingain urdinaren
gaitzari aurre egiten

A large photograph of two men standing outdoors. The man on the left is wearing a dark grey jacket and has his hands in his pockets. The man on the right is wearing a red and black jacket and is smiling. They are standing in front of a metal fence, with trees and a building in the background.

Ostegun honetan,
lanuztea Michelinen

Otar-Goxo

Elkagarriak



* (U) - boterako zandaketa

Gabonetako Otarrak

aukera onena prezio ezin hobean

1. Otarra

"Clayrot" kriantza botila ardoa
 Ametzi txakolin botila
 Urteaina sagardo natural botila
 Ezkur-iberiko paletila 100gr
 Ezkur-iberiko solomoa 100gr
 Ezkur-iberiko txarizoa 100gr
 Idiazabal Gazta "El pastor Vasco" (J.I.)
 Foie zardun Blois medallia
 "Mendivia" esparrago lata
 Gula potoa
 "Eceiza" turroi artesanoa

60€

2. Otarra

"Marqués del Puerto" kriantza botila ardoa
 Ametzi txakolin botila
 "Sumarroca" Cava botila
 Ezkur-iberiko urdiazpikoa 100gr
 Ezkur-iberiko solomoa 150gr
 Ezkur-iberiko txarizoa 100gr
 Erronkariko Gazta (J.I.)
 Foie medallia
 Ahata konfita
 "Gaituru" Tipula-saltsa potoa
 "Lorea" Kantauriko hegaluze potoa
 Lodosako "Catedral" Piper pikilo potoa (J.I.)
 "Mendivia" esparrago lata
 Gula potoa
 Piku lehorren potoa
 "Eceiza" turroi artesanoa

100€

3. Otarra

"Hauzain Ilberri" emeserba botila ardoa
 "Clayrot" kriantza botila ardoa
 Ametzi txakolin botila
 "Sumarroca" Cava botila
 Ezkur-iberiko urdiazpikoa 150gr
 Ezkur-iberiko solomoa 150gr
 Ezkur-iberiko txarizoa 100gr
 Idiazabal "Arenburu" Gazta (J.I.)
 Te eta Jengibre dun Foie medallia
 Ahate urdiazpikoa
 "Arrospide" Ontte potoa
 "Lorea" Kantauriko hegaluze potoa
 "Lorea" Kantauriko antxoa potoa
 Lodosako "Catedral" Piper pikilo potoa (J.I.)
 Lodosako "Catedral" Esparrago potoa (J.I.)
 Gula potoa
 Piku lehorren potoa
 "Eceiza" turroi artesanoa

140€

ZUBIAURRENEA, 2. USURBIL • TEL. 943 36 55 81

Egin zaitetz bazkide

Zure laguntza ere beharrezkoa da



BAZKIDETZA ESKAERA

Izen delturak: _____

Jaiotze data: _____

NAN zenbakia: _____

Helbidea: _____

Herria: _____ Posta kodea: _____

Tel: _____

e-mail: _____

Bankotxea: _____

Kontu korronteko zkia (20 digituak): _____

Bazkide KUOTA: 36€

(Uztallean kobratuko da kontu korrontetik)

Informazio gehiago: elkartea@noaua.com • ☎ 943 36 03 21

Albisteak iruditan !!

Fruta eta barazkien salerosketak euskaraz

Buruntzaldeko udalek bultzatuta, fruta eta barazki dendatan salerosketak euskalduntzeko kanpaina aurkeztu da. Kartel eta bestelako txartelen bidez, bultzatzaileek deitu bezala, denda hauetako paisaia linguistikoa euskalduntzea da helburua. Eta horretarako bitartekoak jarri nahi dituzte. Herritarrei begira, lehaketa bat antolatu da. Aliprox, Dia, Imanol Txapartegi edo Lurdes Frutak dendatara hurbilduta, erosketen truke bezeroek txartel batzuk jasoko dituzue. Bertako letra zopa osatu eta abenduaren 17a baino lehen fruta dendetako batean uzten duenak, hilaren 18an egingo den zozketan parte har dezake. Saria? Denda bakoitzeko bi bezeroren zat bertan gastatzeko 50na euro.



ASTEARTEAN EGIN ZEN KANPAINAREN AURKEZPENA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publicitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregerai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

LARUNBATEAN, MANIFESTAZIOA _____ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

MINGAIN URDINAREN AUZIA _____ **8. OR.**

IGANDEAN, ANTZERKIA SUTEGIN _____ **11. OR.**

LABEKO ORDEZKARIEKIN SOLASEAN _____ **12. OR.**

ZUBELDIA TALDEAREN BAZKARIA _____ **14. OR.**

HIRU ESKUBALOI PARTIDA ASTEBURUAN _____ **15. OR.**



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IDOIA TORREGARAI

Hau komerik!

Nafarroako ardotegei batean egun pasa ederraren ondoren, Bilbotik Donostira doan tren hartzeko zain nengoen geltokian. Nire pentsamendu etilikoetan murgilduta nembilela aguretxo bat hurbildu zitzaidan ea Donostira zihoan tren orain etorri behar zuen galdetuz. Nire gogoeta sakonetik kostata atera eta baietz, oraintxe helduko zela esan nion.

Berak orduan orfeoiaren kontzertutik zetorrela eta primeran pasa zuela esan zidan, eta horrela, inolako abixurik eta anestesiarik gabe, Verdiren ez-dakit-zein opera hasten zait kantatzen hantxe, andenaren erdian! Joeeee, noizbait bat ligatuko eta gerra zibileko kintoa izan behar! Hau komeriy!

Eskerrak orduntxe tren iritsi zela, bestela espektakulu guztia tragatu behar izango nukeen. Dagoeneko egoera hauek ekiditzeko neskak izaten dugun radarra defkondos mailan neukan, eta hurrengo helburua agurea eta ni bagoi desberdinetan egotea zen. Hori lortzeko bagoira bera baino beranduago sartzeko estrategia erabili nuen, horrela bera eseritzen zen lekutik urrun jartzeko (hau dena, tren frenatzen ari zela planeatzen).

Trena gelditu eta jendea jeitsen hasi zen. Ni agurearen atzean. Bera bagoira sartu orduko korrika bestera joango nintzen. Jende guztia atera eta oraindik ez zela sartzen, mekasuen! Ihes egingo dit! Gerri joko ikaragarriya eginez atzeko bagoira korrika batean joan nintzen bidaian egingo nuen lokuluxkaz gozatzen. Ja, ja, nirea da garaipena!

Baina, zer??? Aguretxoa atzetik korrika batean neukan, dopatutako Ben Johnson bat baino krono hobearrekin! Joderrrr!

Bere arnasestua atzean entzuten nuelarik (oraindik bihotzekoak emango dio, no te fal) bagoiaren aurrealderaino joan nintzen (ez zegoen beste inor!!!), banakako eserlekuan eseritzera (zakur aurpegiarekin, noski). Berak indirekta harrapatuko zuenaren esperantza (miraria?) ez zen oso handia, baina azkenean ni baino hiru eserleku atzerago eseri zen.

Dagoeneko okerrera pasa zela sinistuta, musika entzuten jarri nintzen. Baina, bai zera! Ia bihotzekoak eman zidan berriro nire aldemenean ikusi nuenean, ea Eibarrera iristeko zenbat geltoki zeuden galdetzer eitorri zenean. Eta denok dakigu jubilatuek zerbait kontrolatzen badute hori garraio publikoaren ordutegiak eta bonoak direla. "Animo Idoia, 20 minutu eta jeitsi egingo da. Eutsi!"

Beste galderarik egiteko aukerarik egin gabe musika belarrietan jarri eta lo itxurak egin nituen. A zer nolako arrazoia zuen Einsteinek! Dena erlatiboa dela? Bai horixe! Izan ere, 20 minutu horiek inoizko luzeenak egin zitzaizkidan. Azkenean, villa armerara iritsi zen tren. Izugarritzko agurrak eta loreak bota ondoren itxi zen atea.

Gloria Geynor-en *I will survive* kanta bilatu nuen MP3an begiak itxi aurretik.

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !!

Aldarria

1512ko espainiar inbasioaren 500 urteurrenerako 5 urte falta direnean, euskaldunok baditugu inoiz baino arrazoi gehiago Independentziaren aldeko apustua egiteko. Zerbait frogatzen badu gure ibilbide historikoak, hauxe da: menpekotasuna erabat kaltegarria dela, eta soilik gure buruaren jabe bilaturik lortuko dugula herri gisa dagokigun garapen askea.

Espainiar eta frantziar estatuek ez gaituzte errespetatzen, ez digute gure nortasunari atxikitzeke aukerarik ematen, eta Nazio gisa desegin nahi gaituzte, erabakiak libreki hartzeko bidea itxiz. Ez digute bizitzeko betarik ematen, guk Euskal Nazio izateari uztea baita bere eskaintza bakarra.

Independenteak izan ginen Nafarroaren izenpean, indarrez Estaturik gabe eta zatiturik utzi gintuzten arte. Gerora, foruak izan ziren gure Askatasunaren hondarrak, baina horiek ere gehiegizkoak iruditzen zitzaizkien. Frantziar eta espainiar nazioetan murgiltzea da nahi zuten eta duten bakarra, eta soilik deszentralizazioan oinarritutako formulak onartzen dituzte. Erregionalismoan jarri dute muga, eta beste guztia gaitzesten dute.

Erabakitzeke ahalmena bermatzen duen autonomiari ere ezezkoa eman diote, nabarmenki, aspaldiko auzi honi konponbide politikoa emateko oportunitate historikoa zapuztuz.

Ez digute beste biderik uzten: ez digute ezer ere eskaintzen. Guk hartu behar dugu gure etorkizunaren giltza, inori baimenik eskatu gabe, gurea delako, inork ez duelako Euskal Herriari libre erabakitzeke ahalmena ukatzeke eskubiderik.

Aspaldiko euskaldunek jakin zuten kanpokoan menpekotasunean ez erortzeko formula bakarra Estatu baten osaketan zegoela, eta mende luzeetan eutsi zioten Independentziari. XXIgarren mendeko euskaldunok ataka berdinean gaude. Iraganeko ikasgaiaren berri badugu, eta geroari so egiten diogunez baieztatu ozena ematen diogu Independentziari.

Euskaldunok gure Estatu osatu behar dugu, eta horretarako urrats zehatzak eman behar ditugu. Independentzia euskal jendar-tearen potentziala garatzeko biderik onena delako, gure hizkuntza, kultura eta nortasuna babesteko modurik onena delako, gure eredu

propioa ezkerretik eraiki nahi dugulako, Independentzia etorkizuna delako, Askatasuna ekarriko duelako.

Independentziak, finean, menpekotasun une latzak atzean uzteko parada emango digu, beste herriekin harreman justu eta leialak eraikitzeke bidea, alegia. Independentziari esker aurkituko dugu gure lekua munduan, guk nahi duguna, ez besteei komeni zaiena.

Horregatik Independentziaren aldeko hautua egiten dugu, Euskal Estatuaren osaketaren aldekoa. Eta aldarrikatu nahi dugu ez dela zilegi Independentzia grina aukera politikorik gabe uztea. Oso inportantea da hurrengo hauteskundeetan eta orohar, euskal agertoki politikoan, Independentziaren aldekoek eskubide guztiak izatea. EAE-ANV ilegalizatzea edo hauteskundeetan parte hartzeko aukerarik gabe uztea independentziazaleen eskubideak urratzea litzateke, eta honengatik, Independentziaren aldeko apustua egiten dugunok bat egin behar dugu elkarrekin jarduteko.

Urrats berriak emateko unea iritsi zaigu eta bagoaz.

Usurbilgo EAE-ANV

Larunbat honetan manifestazioa, “Guk, Euskal Nazioa, independentzia” lemapean

Urriaren 12an Iruñean iragarri zuen bezala, EAE-ANVk martxoan egingo diren Espainiako Gortetarako hauteskundetan parte hartuko du. “Independentziaren aldeko mezua Espainiara eramateko konpromisoa hartu dugu, Euskal Herria nazioa dela adierazi eta Euskal Estatu sortzeko bidean bat egiten dugun guztion aho-ntsa entzunarazteko”. Honen harira, larunbat honetarako manifestazioa antolatu dute Usurbilen. Arratsaldeko 19:00etan abiatuko da, “Guk, Euskal Nazioa, independentzia” lemapean.

EAE-ANVk argitara eman duen manifestua (ikus “Ika-mika” 4. orrian), “Euskal Herriaren eskubideen alde arlo ezberdinetan lanean ari diren guztien edota independentziaren alde gauden guztion topaleku izatea nahi dugu”,

adierazi du Usurbilgo EAE-ANVk prentsa ohar bidez. Are gehiago, “horretan gabiltza orain, independentziaren aldarria Euskal Herriko lantegi, ikastetxe, erakunde, kultur, kirol eta mota guztietako elkarteetara eramanez”.

Hala, larunbat honetan arratsaldeko 19:00etan, “Guk, Euskal Nazioa, independentzia” goiburu duen manifestazioan parte hartzera gonbitea luzatu dute, “independentziaren bidean indarrak metatzeko”.

Datorren astean, herri batzarra

Usurbilgo EAE-ANV taldeak jendurean aurkeztu nahi du 2008ko udal aurrekontu proposamena. Horretarako, herri batzarra antolatu dute: azaroaren 29an Sutegin. EAE-ANVren esanetan, “herri batzar horretan herriko kultur, kirol... elkarteek ere parte-hartzea gustatuko litzaiguke. Izan ere, zuek zarete



EAE-ANV DEITU DUEN MANIFESTAZIOA
ARRATSALDEKO 19:00ETAN HASIKO DA.

neurri handi batean herriko bizitzaren motore eta suspertzaile, eta zuen iritzia eta ekarpena ere jasotzea gustatuko litzaiguke, eta ahal den neurrian, gure proiektuan txertatu”.

Horregatik, herriko talde eta eragileak euren ekarpena egitera gonbidatu dituzte. Herri batzarra azaroaren 29an izango da, arratsaldeko 19:00etan, Sutegin auditorioan.

Ika-mika !!

Besarkada bero bat lehenik egun espetxean aurkitzen diren gizon – emakume guztiei. Mendekuan oinarriturik dagoen espetxe politikaren presoei. Mendekua diogu, bergizarteratzean oinarritua dagoen politika beharrezko zigorren sisteman oinarritua dagoelako. “Gaizkilea = kartzela edo gaizkilea = gizar-tertik baztertu”. Honela bada, drogaren ondorioz arazoak izan dituen pertsona arriskutsua da, etorkinak ere zenbaitek arriskutsutzat ditu, herriaren antolakuntzan lanean ari diren hainbat ere arriskutsuak dira, eta abar. Eta horrela zerrenda amaigabea egin genezake. Zergatik dugu gure artean beldurra hain hedatua? Zergatik telekomunikabideen imperioek ez dute beste lanik? Erantzun errazeko galdera da berau. Beldurra hedatua dagoen gizar-teran “Segurtasuna” saltzea delako helburua. Horretarako justifikatuz kartzela politika

Makrokartzelari Stop!

zorrotzak, makrokartzelak...

Gizarteak eta presoek ez dute makroen beharrik, aldiz, bai gizarteraren laguntza eta alternatiba edo bergizarteratze proiektu egokiak. Gipuzkoan ere ez litzateke behar-ko 500 zelda funtzionaleko espetxerik, alternatiba egoki baten hautua egingo balute agintariek, nahikoa litzateke 150 pertsonentzako zentru txiki bat. Baina noski, honetarako borondatea eta gauzak zuzen egitearen gogoia daude ezbaian. Espetxe politika egokiaren zati lirakeke ama presoentzatu berezia, drogomenpekotasun arazoak dituztenena, arazo psikikoak dituztenena, eta abar...

Zer ondorioztatzen digu honek? Makrokartzelaren aurkako taldetik argi dugu, espetxeetako egoeraren arazoa, zalan-tzarik gabe, gizarteraren beste arazo sakon bat dela. Beraz egungo egoera gizarteratzearen beharra sumatu dugu. Honetarako

herritar guztioi zabaltzen dizuegu gonbidapena, datorren asteazkena **azaroaren 28an arratsaldeko 19:30ean Sutegin burutuko den “Zubietako Makrokartzela”ri buruzko hitzaldira**. Bertan, Salhaketako Cesar Manzanos eta presoekin lanean diharduen Mikel Goenaga apaiza izango dira, egungo espetxeen egoera sakon azaltzeko.

Esan, “makrokartzelaren aurkako taldean” hainbat talde ari garela lanean: Arrats, Zubietako Herri Batzarra, Salhaketa, Donostiako Baga-Boga, Loyola-etxea eta zenbait alderdi politiko.

Bide luze honetan bidelagun izateko prest bazaude jarri Zubietako Herri Batzarrarekin harremanetan.

Gizarteari dagokigulako espetxean dagoen norbanako ororen eskubide urratuak salatzea.

Makrokartzelari Stop! taldea

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

Larreko hizkuntza



Oro dator hedamenik merezi ez duten ditxosozko egunkari atzerritar horietatik:

Hasteko euskal hizkuntzak ez dakit zenbat sinonimo dituela gauza bat izendatzeko (hortaz, aberatsa oso), baina, aldiz, beste zenbait hitz atzerriko hizkuntzetatik bereganatu dituela.

Uste dut, euskara hizkuntza internet, demokrazia, telefono eta beste zenbait kontzeptu baino zaharragoa dela, eta beraz, euskal izenik ez badute euskara sortu zen egunean, existitzen ez zirelako dela. Baina irudiko gertatuko zen beste hizkuntzekin ere. Baina lehenago aipatu hitzak gaztelania bereak bailituen egin dute gogoeta zenbaitzuek. Huts egite latza, beraz.

Inposatzaileen ospearekin zamatu nahi gaituzte, gainera, lan batetan hasi aurretik azterketa egiten delako euskara menderatzen dugun ala ez jakitearren (sartu gabe eztabaidan azterketa horretan nolako maila eskatu beharko litzaitekeen). Gaztelan ez da halakorik egiten, baina gaztelania ezean ingelera eta alemaniera jakitearekin soilik ez dute onartuko jendaurrean lan egin beharreko postu batetarako.

Pertsona horri gaztelania hitz egitea eskatuko zaio, eta zilegi da; bada euskararekin gauza bera gertatzen da. Hala ere, inposaketa omen. Euskal hizkuntza zegoen herrialde honetan behinola lehenbizi latina eta ondoren gaztelania indarke-riaz ezarri aurretik. "Omen" gabe, inposaketa garbi-garbia.

Bestalde, euskara baserriarren hizkuntza besterik ez dela eta esparru horretatik kanpo ezin duela gizartearen eguneroko erabileran erantzunik eman berresten da, berriz ere, manera okerrean. Izan ere, ama hizkuntza euskara dugunok ez dut uste arazorik dugunik gure ideiak, sentimenduak eta abar euskaraz pentsatzeko eta adierazteko. Ez dut uste euskarak oztoporik ezartzen digunik gure ideiak bete-betean aditzera emateko. Eta inork hitzen edo egituraren baten gabezia somatzen badu, ez da euskara hizkuntzaren errua, baizik eta norbanakoarena.

Euskarak balio digu jolasteko, maitatzeko, ikasteko... eta zernahitarako; eguneroko eta eguneroko ez diren egoeratan ere bai!

Baina nik, hizkuntza larrekoa, / nahi haunat ere noranahikoa: / jakite hegoak igoa, / soina zahar, berri gogoia, / azal horizta, muin betirakoa. (Lizardi)

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Lasai hartu!



Oraindik negua iristeko hilabete baino gehiago falta den honetan, iritsi dira izotzak zuritzen dituen goiz horiek. Beste konturik ez da inguruetan: hotz handia egiten duela, elurra egin behar duela, ... Aurten nonbait, ez dugu San Martin inguruan izaten diren hego haizeez gozatzeko aukerarik izango.

Denbora pixkabat pasa da puntuen karneta jarri zigutene-tik. Astebururo entzuten dugu berrietan hainbat istripu izan direla, hainbat hildako/zauritu, ... Neurriak hartzen ari omen dira honetan, kontrol gehiago, isun gehiago, ... Abiadura murrizteko ere egiten dira kanpainak. Baina kotxea hartzen dugunean ahaztu egiten zaizkigu kontu guzti hauek.

Tartetxo hau aprobetxatu nahi nuke gogoeta bat egiteko. Gure auzoko bidea autopista ez dela garbi daukagu denok. Ermitara iristen den bidean bi kotxe kabitzen dira baina base-rietara edo Txokoaldera joateko bide zati batzuk oso estuak dira. Beti dago presaka ibiltzen den norbait eta hau dela eta susto bat baina gehiago hartu dut nik neuk. Horregatik esan nahi nieke honela ibiltzen diren gidariei presak etxean utzita ateratzeko. Presaka ibiltzeak ez digu ia denborarik aurrezten eta hartzen diren sustoekin ez du penik merezi!

KALEZAR

ALOÑA PULIDO

Kalexarekos

Auzoan ensaiatzen duten musika talde-ak zoriondu nahi ditut urte honetan atara duten "Kalexarekos" izeneko diskoaren erantzun onagatik, izan ere herriko tabernetan salgai jarri ostean nahiko salmenta onak lortu baitituzte. Disko horretan udalak Kalezarren utzitako lokalean ensaiatzen duten zortzi taldeek hartu dute parte: Epok, Mendeku Itxua, Despervicio, D3, Insitu, Susmo, Hitzi-p eta Paraflipling.

Bestalde, ensaiatzeko udalak utzi dizkieten lokalei dago-kienez, taldeen artean nahiko ondo moldatzen omen dira, lau gela dituzte eta gela bakoitzean bi taldek ensaiatzen dute. Ensaiazteko ordutegi bat ere errespetatu behar izaten dute, arratsaldeko 5:30etatik gaueko 9:30etara.

Lokalak ez daude oso ondo prestatuta erabilera horretarako. Arazo handiena udan izaten dute, izan ere sekulako beroa egiten omen du bertan eta noski leihoak ireki behar izaten dituzte eta sekulako soina sumatzen da. Lokalen kokalekua ere ez da oso aproposa, eraikin berdinean Eguneko Zentroa eta Haur Estola baitaude. Udala arazoari konponbidea ematekotan omen dabil eta ea lehenbailehen zerbait lortzea egiten duten, guztion onerako.



ATXEGALDE

JONE EIZMENDI

Auzoaren oroitzapenak



Auzo honetara iritsi ginenetik aldake-
Ata ugari izan ditugu. Garai hartan
auzo berri bat zen, txoko ugari gogoratzen
ditugu oraindik. Esaterako, Markelek
Karobi taberna ireki zueneko; Truke arro-
pa denda; Divinak egunero ekartzen zuen
arrain freskoa; M^aPazen denda, eguneroko ogiaz gain
hainbat produktu eros zitezkeena; Alkorta Harategia,
okel goxo ugari dastatzeko; Mari Loli kinkildegi eta dro-
geria, haurrentzat jostailu eta guzti; ileapaindegi bat
auzotarrak apaintzeko; altzari denda bat ere bazen
Aristitxo kalean...

Baina urteak pasa ahala batzuk itxi egin dira, jubilatuz
edo eskualdatu egin direlako; edo gure auzoa nahiko
urruti gelditu delako agian. Momentuan, Aldatz Kirol
denda, Marixabelen arropa denda, Karobi taberna,
Alkorta harategi-autozerbitzua eta Anparoren depilazio
eta solarium zentruarekin gelditzen gara.

Beste aipamen bat egin nahi nuke Ucineko kutsadura
dela eta Eusko Jaurlaritzak jarrita daukan furgonetari
buruz. Beheko kalean jarri zuten epe baterako, espaloian



gainera, baina hilabete ugari daramatza neurgailu horrek
eta geroztik ez dugu informazio gehiagorik jaso.

Azkenik esan, honez gero aspertuak egongo zaretela
beti aurpegi berdina ikusten, baa... urte berriak jende
berria ekarriko du! Tarte honetatik nire agurrik beroena
luzatu nahi dizuet eta zoriontsuak izan!

AGINAGA

AITOR HELETA

Ludoteka arratsaldetan irekita



Laster urtebete izango da zinema zaha-
Larra berritu zela, bertan aktibitate eta
ekitaldi asko antolatu dira, haien artean
larunbatero goizeko 10:00etatik eguerdiko
13:30ak arte irekita egoten den ludoteka.

Negurako toki aproposa denez, arratsal-
dero ireki nahi da. Horretarako Antxomolantxa Elkartek
bilera antolatu du hurrengo asteazkenean, azaroak 28,
arratsaldeko 19:00etan ludotekan. Bertan, ludotekaren
antolamenduaz hitz egin nahi da (ordutegiak, ekin-
tzak...).

Jakin ere badakigu 1992. urtetik hona jaiotako 58 haur
eta gazte daudela Aginagan (0 tik 15 urte arte dituztenak
hain zuzen ere), eta batik bat hauei
zuzendua egongo
dira ludoteka eta ber-
tako ekintzak.

Hurrengo asteazke-
neko bilerara herritar
guztiak gonbidatuak
zaudete. Animatu eta
parte hartu.



ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Zubietamendia ezagutzen

Igandean mendira joan ginen goiz parte-
lan, Zubietan Lantzen taldekoek antolatu-
tako ibilaldian. Zubietamendik dituen txoko-
ak eta parajeak ezagutaraztea zuten helburu.
Han ibili ginen hogeitasei bat lagun gora eta behe-
ra bazterrik bazter: Berridi, Letabidea,
Biribilondo, Arkaitz erreka... Hor duzue Lasarte, han
Andoain... Beste aldean Usurbil.

Prostuetzeko Jose Luis gidari genuen eta honek ederki eza-
gutzen ditu bazterrak. Leku batzuk garbi zeuden, ibiltzeko
moduan, baina beste asko sasiak janda. Eta ibilian ezagutu
genituen Zubietaren mugak: Andoain, Zizurkil... Horrekin
batera Zubietara ekarri nahi dituzten eraikinak: hor izango
duzue kartzela, han kuartela... Beste aldean erraustegia. Ez
dira kontu gozoak!

Horrela poliki-poliki, kalekume koadrila honek antenarai-
no igo eta buelta hartu zuen Letabide eta Arkaitz errekatik.

Aldapan behera gentozela Jose Luis, oilagorak inondik
azaltzen ez zirela ikusita, saiatu zen gure kaskezurrotan hain-
bat zuhaitz eta landare sartzeko. Ez dakit lortu ote zuen. Ni
behintzat ez nintzen hain gaizki gelditu. Gurbizta ezagutzen
ote nuen galdetu zidan. Eta erdi madrileñoa naizen aldetik
ezagutzen nuen zuhaixka hori. Badakizue Madrileko arma-
rrian zer agertzen den: el oso y el madroño.



Mingain urdineko kasuak, gorriak ganaduzaleentzat

Azken egunetan ez dabil beste konturik. Mingain urdina gora eta behera gabiltza. Giza kontsumorako inolako arazorik ez dagoela argi utzi arren, kaltea handia jasan dute beste behin, eguberriei eta garai honetan hain garrantzitsuak diren azokei begira ziren ganaduzaleek.

Belarjaleen ahoa erasotzen duen birusa da mingain urdina. Kolorearena, denborarekin mingainak hartzen duen tonu morexkagatik da. Ardiak dira bereziki egoera hori pairatzen dutenak, baina trantze berean aurki daitezke baita behiak edota ahuntzak ere. Hala dio Apolinar Insausti Unain Albaiteroak SLko langileak. “Oso erraz zabaltzen da”, adierazi du. Eltxoei esker.

Baina albaiteroarentzat ez da kontu berria. Duela zazpi urte Balearretan (Espainia) agertu omen zen. Orduetik agertu eta desagertu, modu horretan ibili da birusa. 2004an Andaluzian berragertu zenetik Ipar Afrikan ere sumatu omen zuten. Iaz, Europa erdialdean zehar barreiatu zen. Bertakoa zortzi zenbakidun serotipoa zen. Toulouseraino (Frantzia) jaitsi omen zen. “Kezkatuta ginen datorren urtean ez ote zen hona iritsiko”, adierazi du Insaustik.

APOLINAR INSAUSTI ALBAITEROA

“Hotzarekin eltxoak ez du hainbesteko lanik egin. Udan gertatu balitz, ikaragarria izango zen”

Baina denen sorpresarako zortzi ez, bat zenbakidun serotipoa izan da azken egunetan denen ahotan dabilen mingain urdina. “Andaluzian udazken



BAKUNAZIO KANPAINA HILABETEZ LUZATUKO DA. LEHEN DOSIA DRAIN JARTZEN ARI DIRA. BIGARRENA, ASTE BATZUK BARRU JARRIKO DUTE.

honetan agertu da”, argitu du albaiteroak. Honenbestez, 2004az geroztik Andaluzian zegoen lau zenbakidun serotipoari aurre egiteko jarritako txertoek ez dute balio izan, oraingoa saihesteko.

Hala ere, baikorra da Insausti. Duela hilabete batzuk gertatu bazen, askoz okerragoa izango zela dio. “Zortea dugu eguraldiarekin. Hotzarekin eltxoak ez du hainbesteko lanik egin. Udan gertatu balitz, ikaragarria izango zen”, adierazi du.

Txerto “hila” eta “bizia”

Pasa den astean, Gipuzkoan zehar han eta hemen txertoak jartzen hasi ziren albaiteroak. Hain zuzen, azken egunetan zalantza asko eragin ditu animaliei jartzekoak ziren txertoak. Are gehiago, ardiek ume egiteko garaia gainean dutenean. Bigarren mailako eragin kaltegarriak, abortuak esaterako, jasan zitzaketela aipatu izan da. Orain arte izan duten esperientziaren arabera, jarriko dituzten

txertoek horrelako ondorioz izango dutenik ukatu du Insaustik. “Txerto hila erabiliko dugu guk. Dosi bat orain jarriko dugu. Bigarrena, hilabete barru”, argitu du. Animaliangen eragiteko denbora beharko dute beraz.

Bada ordea beste txerto mota bat; txerto bizia delakoa. Dosi bakarrean jarritako txerto horrek arazoak eragin izan ditu albaiteroen esanetan; abortuak adibidez. “Efektu askoz indartsuagoa du, baina gaixotasuna mozteko onena da”, dio Insaustik. Baina esan bezala, txerto hau ez, bestelakoa baliatuko dute albaiteroek datozen egunetan.

Haien lana, ordea, ez dute txertoa jartzera mugatu nahi. “Zepoak jarri dira eltxoak harrapatzeko”, adierazi du Insaustik. Horrekin haien bizitza ezagutu eta birusari aurre egin nahi liokete.

Santos Jauregi, Igartzazabal baserria

“Lasai jan daiteke, guk geuk jaten dugu eta”

Kezkatuta daude azken aste-etan mingain urdinaren inguruan esaten ari direnak entzun, eta batez ere, horren ondorioak pairatzen ari diren ganaduzaleak. Horien artean dira Igartzazabalekoak.

NOAUA! Albaiteroak zuenean egon berri dira, ezta?

Santos Jauregi. Ardiak bakunatzera etorri ziren. Hilabete barru kontrabakuna jarriko diote. Hemen daudenek denek jaso dute. Baina horrek guztiak tratu txarra ematen die animaliei; bakunazioak, belarrietan txapa jartzeak... Gainera, oso urduri jartzen dira arrotzen bat ikusten dutenean. Gauzak ondo egin badira, gaixotasunik ez du egon behar. Denborak erakutsiko du bakunak onak ote diren.

N. Zuek baduzue mingain urdin kasurik?

S. J. Guk ez dugu izan. Gure ardie-tako batek ere ez du sintomarik eduki. Hemen ez dago ezer. Aurrerantzean ez

dakit zer gertatuko den, beldurra ematen du. Baina momentuz, gureak garbi daude, gurean ez dago ezer.

N. Ezer izan gabe ere, ondorioak beti kaltegarriak zuentzat, hegaztien gripearekin edo behi eroekin gertatu bezala?

S. J. Kalte handia. Batetik, ganadua ezin baita mugitu. Jendeak segituan galtzen du konfiantza. Niretzat ez da alarma pizteko modukoa. Gainera, orain ez da dioten eltxo hori ibiltzeko garaia.

N. Garai txarrean dator albistea. Azokak, eguberriak eta ardiak ume egiteko unean.

S. J. Ardi produkzioko garai garrantzitsua orain da. Ez dakit zergatik sortu den momentu honetan albiste hori. Ganaduarentzat oso gogorra da.

N. Eta guztia, diotenez, kontsumo-rako inolako arazorik ez dagoela esanda?

S. J. Lasai jan daiteke, guk geuk



“ZERBAIT SUMATUKO BAGENU, GU IZANGO GINATEKE LEHENAK HORREN BERRI JAKINARAZTEKO”.

jaten dugu eta. Gaitzak kutsatua dagoen animalia ere jan badaiteke, nik uste ondo dagoena ere jan daitekeela. Gu lasai gaude. Zerbait sumatuko bagenu, gu izango ginatete lehenak horren berri jakinarazteko.

Aitor Usandizaga EHNEko kidearen aholkua

“Ganadua etxetik ahalik eta gutxien mugitu”

Tentsio handiko eta argibide gutxiko egunak dira hauek EHNEko kide Aitor Usandizagarentzat. Kezka ez da gutxirako eta jaso dituzten ganaduzaleen dei ugari horren guztiaren adibide dira. Airean kontu asko daudela dio eta datozen egunak giltzarriak izan daitezke. “Ganaduaren mugimenduari buruzko Europako araudia onartu daiteke”, gogoratu du. Horri egun hauetan hastekoak ziren txerto jartze saioak gehitu behar.

Kaltetuak betikoak, ganaduzaleak. Bi zentzutan gainera; “ekonomikoki eta baita maneju aldetik ere”, dio EHNEko kideak. Honek guztiak ekarriko dituen ondorioak neurtzea oraindik ezinezkoa izan arren, EHNETik duten kezka urrunago doa.

Lasaitasunerako deia

“Zer eragin izan dezakeen datozen urteetan”, argitu du. Baina lasaitasunerako deia luzatu nahi zaie

EHNE-tik. Pazientziaz hartzeaz gain, baita gomendioa luzatu ere abeltzainei. “Ganadua etxetik ahalik eta gutxien mugitzea”, adierazi du Usandizagak.

Egun batetik bestera agertu den gaixotasuna dela iruditu arren, hor egon den eritasuna dela gogorarazi du. Horren aurrean landu beharrekua prebentzioa dela aipatu du. “Eta aurrerantzean horrekin elkar bizi beharko dugu”, adierazi du EHNEko kideak.

Jean Louis Laka kantaria

Sutegin arituko da larunbat arratsaldean

Nafartarrak elkarteak antolatatu duen kantaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da. Bertsolari bezala ibilbide luzea du Jean Louis Laka Baigorriko kantariak. Iaz, ordea, lehen diskoa plazaratu zuen. Lan hori aurkeztera hurbilduko da larunbat arratsaldean.

Jean Louis Hariñordoki Laka kantariak "Elizatik plazara... Baigorriarren gisara" diskoa kaleratu zuen iaz. Diskoaren aurkezpenean esan zuen bezala, "galtzera zihoazen kantu batzuk nonbait gelditzeko helburuarekin" osatu zuen. Bertsolari bezala eza-guna da Laka, baina kantua betidanik maitatu du, eta praktikatu, elizan, ostatuetan, baita plazan ere. Usurbilen aurkeztuko duen diskoa, bere ibilbidean plazaratu duen lehena da.

"Elizatik plazara... Baigorriarren gisara" diskoa 20 kantuz osatzen da. Kantu batzuk bakarka abestu ditu, beste batzuk bi bozetan, "a capella", eta



LARUNBATEKO SAIOAN MAGALI ZUBILLAGA, EÑAUT ETXAMENDI ETA MAITENA MONAKOREKIN BATERA ARITUKO DA LAKA ABESLARIA. SARRERA, 5 EURO.

badira musikarien laguntzaz grabatutako kantuak ere. Magali Zubillaga, Mikel Erramuzpe, Eñaut Etxamendi eta bere alabaren ahotsak entzun daitezke diskoan. Baita Erramun

Martikorenaren boza ere. Gehienak herri kantuak dira, baina Eñaut Etxamendi, Xalbador, Attuli eta Manex Pagolaren hitzetan oinarritutako kantuak ere badira.

"Diskoan bildu ditudan kantu batzuk galtzeko zorian zeuden"

NOAUA! "Elizatik plazara... Baigorriarren gisara" diskoa plazaratu zenuen iaz. Lan horretan oinarrituko da Usurbilen eskainiko duzun saioa, ezta?

Jean Louis Laka. Duela 10 hilabete plazaratu nuen diskoan badira 20 kantuz: 4 eliza-kantu (hauetatik 2 kantuz eguberri edo gabonetan abesten direnak), eta beste 16 kantuz plazakoak. Baigorri herri kantariaren fama du. Denek dakite diskoan agertzen den Erramun Martikorena ere hangoa dela. Ohitura izana da elizkizunetan kantuz hasi eta ostatuan jarraitzea. Baina denborarekin eta ohitura aldaketekin, kantuz batzuk galtzeko zorian ikusten nituen. Kantu horiekin dut diskoa osatu. Baina diskoan ez diren beste hainbat kantuz ere abestuko ditugu.

N. Bakarrik etorriko zara ala musikarien laguntza izango al duzu?

J. L. L. Diskoan agertzen diren musikariak eta kantari batzuk ez dira etorriko. Baina ez naiz bakarrik joanen Usurbilera. Han ukanen ditut nere bi abeslari gazte, bata zein bertzeak ahots zoragarriak dituztenak: Magali Zubillaga aldudarra eta Maitena Monaco baigorriarra ni bezala. Iparraldeko moldean, abesti gehienak bi bozetan kantatuko ditugu, bakoitzak bat edo bertze bakarka ere bai.

N. Nafartarrak kultur elkarteak antolatatu du zure kantaldia. Usurbilgo elkarte honek ere, Sohütako ikastolaren aldeko kanpaina jarri du abian. Baigorritik, nola ikusten da ikastolen eta euskararen etorkizuna Iparraldean?

J. L. L. Gure etxeko hiru alabak ikastolatik iraganak dira. Garai hartan, diru asko behar genuen eman ikastolako gela berriak egiteko eta haurrak eguneroko eremateko, autobusa hartzeko baimenik ez baitzuten. Geroztik, udaletxe gehienengatik bederen ezagutza bat lortu dute ikastolek. Euskaltzaleek badakigu haurrak ikastolan ezarri baino ez dugula lortuko euskara ikas dezaten. Hizkuntza jakitea garrantzizkoa da baina ez da aski. Euskara erabili behar da; hots euskaraz bizi. Bertzeak bertze, konbentziturik nago euskal kantuak buruz ikasteak laguntzen duela hizkuntza ongi menperatzen eta euskaraz pentsatzen, bertsolaritzarekin nolaz ez. Atseginaren bidetik euskaldunak laguntza handia ekar dakio euskarari. Nik hautu hori egin dut.

Igande honetan Sutegin, “Zai, beti zai” klown ikuskizuna

Pupila eta Puxika dira “Zai, beti zai” antzezlaren protagonistak. Ametsetako gizonaren zain, Pupila eta Puxikaren gogoeten lekuko bihurtuko dira ikusleak. Klown itxurako komedia honetan, umorea da nagusi. Usurbilgo udal gizarte zerbitzuek antolatutako antzezlari hau arratsaldeko 19:30ean hasiko da.

Antzezlaren sinopsiak hau dio: “sentimenduzko heziketari buruzko klown parodia. Pupila eta Puxika pailazoak zain daude.... Ametsetako gizonaren zain... Nolabait esateko, bere gizon idealaren zain daude. Baina Printze Urdinaren etorrera luzatzen den bitartean, denbora dute ikuslego lagun min modura hartuta, euren fantasiak eta ametsak elkarri kontatzen, beraien nahien adierazpena zorakeriarra eramanez. Era honetan, ikuskizunearan ikasitako mitoei buruz ironiaz

